

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	Uribe-Kosta B.H.I.	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	Batxilergoa	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	2
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	Ekonomia eta enpresen antolaketa		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	Hizkuntzak, matematika, kultura zientifikoa, Ekonomia, Administrazio eta kudeaketa oinarriak, Geografia, Historia		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<ol style="list-style-type: none">1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia2. Matematikarako konpetentzia3. Zientziarako konpetentzia4. Teknologiarako konpetentzia5. Konpetentzia sozial eta zibikoa6. Arterako konpetentzia7. Konpetentzia motorra		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Mikel Galarza Idirin	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018 - 19

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Enpresaren elementuak, enpresa motak eta ekonomian dituzten funtzioak deskribatzea eta interpretatzea, baita zer forma juridiko hartzen dituzten ere, eta horietako bakoitzak jabeeki eta	1.1 Enpresen forma juridikoak bereizten ditu, eta enpresa mota bakoitzari eskatzen zaizkion kapitalekin eta erantzunekin lotzen ditu.

<p>kudeatzaileei zer lege-erantzukizun dakartzkien eta zer kapital-betebehar dituen.</p> <p>2. Enpresak zer inguruetan jarduten duen identifikatzea eta aztertzea, eta hortik abiatuta, enpresak hartzen dituen estrategiak eta erabakiak eta enpresaren jardueraren gizarte- eta ingurumen-eraginak azaltzea.</p> <p>3. Enpresek zer hazkunde-estrategia eta erabaki hartzen dituzten jakitea eta aztertzea, jarduten duten eremu globalaren ezaugarriak kontuan hartuta.</p> <p>4. Enpresa baten baliabideen plangintza, antolakuntza eta kudeaketa azaltzea, eta kontuan hartzea zer aldaketa egin behar diren enpresak jarduten duen ingurunean, hark planteatutako helburuen arabera.</p>	<p>1.2 Enpresaren ezaugarri zehatzei erreparatuta, harentzat zer forma juridikoa den egokiena balioesten du, enpresen sailkapenak dakarren arazoibidean oinarrituta.</p> <p>1.3 Enpresak sailkatzeko irizpideak aztertzen ditu kasu praktiko jakinetan: egiten duten jardueraren izaeraren arabeko sailkapena, neurriaren araberkoa, teknologia-maila, zer merkatutan jarduten duten, enpresaren formula juridikoa, eta izaera publikoa edo pribatua izatea.</p> <p>2.1 Bere inguruan dauden enpresa eta enpresari askotarikoak identifikatzen ditu eta badaki zer-nolako harremanak dituzten ingurune gertukoarekin.</p> <p>2.2 Enpresaren, gizartearen eta ingurumenaren arteko harremana aztertzen du.</p> <p>2.3 Enpresek gizartean eta ingurumenean egiten dituzten jardueren alderdi onuragarriak eta kaltegarriak balioesten ditu. Enpresen jarduera aztertzen du, ekintza eta aurrerabidea dakarren aldetik, eta enpresek gizarteari eta herritarrei dakarkieten balioa balioesten du.</p> <p>3.1 Enpresen kokapena eta neurria erabakitzen duten faktoreak aztertzen eta azaltzen ditu, eta erabaki horiek enpresarentzat gerora izango duten garrantzia balioesten du.</p> <p>3.2 Enpresaren hazkundera lehiarako estrategia dela balioesten du eta enpresen neurri egokiarekin lotzen ditu eskala-ekonomiak.</p> <p>3.3 Espezializazioko eta dibertsifikazioko estrategiak azaltzen eta bereizten ditu.</p> <p>3.4 Kanpo- eta barne-hazkuntzako estrategiak aztertzen ditu, egoera zehatzetatik abiatuta.</p> <p>3.5 Enpresa txiki eta ertainek Euskal Herrian eta Espainian duten lekua aztertzen du, haien estrategiak eta jardun moduak balioesten ditu, eta alderdi onuragarriak eta kaltegarriak bereizten ditu.</p> <p>3.6 Enpresa multinazionalen ezaugarriak eta garapen-estrategiak azaltzen ditu, eta gizartearekiko eta ingurumenarekiko erantzukizunaren garrantzia balioesten du.</p> <p>3.7 Enpresaren estrategian berrikuntza eta teknologia berriak barneratzearen eragina ikertzen eta aztertzen du, eta lehia globalerako gaitasunarekin lotzen du jardun hori.</p> <p>4.1 Lanaren banaketa teknikoa hausnartzen eta balioesten du interdependentzia ekonomikoa ageri duen testuinguru globalean.</p> <p>4.2 Enpresen antolamendu-egitura, zuzendaritza-estiloa, informaziorako eta komunikaziorako bideak, erabakien gaineko</p>
--	--

<p>5. Ekoizpen-prozesuak aztertzea, efizientziaren eta produktibitatearen ikuspegitik, eta I+G+Bren garrantzia aintzat hartzea.</p> <p>6. Enpresa baten diru-sarrerek eta kostuek zer egitura duten zehaztea, eta, kasu batetik abiatuta, enpresaren etekinak eta errentagarritasun-atalasea kalkulatzeko.</p> <p>7. Inbentarioaren zikloaren funtsezko kontzeptuak deskribatzea eta hura kudeatzeko ereduak erabiltzea.</p>	<p>partaidetza-mailak eta antolamendu informalak azaltzen ditu.</p> <p>4.3 Enpresen jarduera-eremuen egitekoak identifikatzen ditu: hornitzea, ekoiztea eta merkaturatzea, inbertsioak eta finantziarioak, giza baliabideak, administrazioa eta horien guztien arteko harremanak.</p> <p>4.4 Gertuko ingurunean dituen enpresen antolamendua aztertzen eta ikertzen du, eta horretan, alderdi onuragarriak eta kaltegarriak antzematen ditu, konpondu beharreko arazoak hautematen ditu eta hobetzeko proposamenak azaltzen ditu.</p> <p>4.5 Antolamendu jakinetan baliatzen du ikasitakoa, arazoak hautemateko eta hobekuntzak proposatzeko.</p> <p>4.6 Enpresen giza baliabideen garrantzia balioesten du eta haiek kudeatzeko moduak eta modu horiek motibazioarekin eta produktibitatearekin dituzten loturak aztertzen ditu.</p> <p>5.1 Faktore askoren produktibitatearen gaineko kalkuluak egiten ditu, lortutako emaitzak interpretatzen ditu, eta enpresen produktibitatea hobetzeko bitartekoak eta alternatibak ezagutzen ditu.</p> <p>5.2 Langileen produktibitatearen eta soldataren arteko harremana aztertzen eta balioesten du.</p> <p>5.3 Enpresen inbentarioen kontrolaren eta haien produktibitatearen eta efizientziaren arteko loturak balioesten ditu.</p> <p>5.4 Ikerketa eta berrikuntza teknologikoen giza errentaz eta enpresentzat duten garrantziaz hausnartzen du, lehiakortasunaren eta hazkundearen ikuspegitik.</p> <p>6.1 Enpresen diru-sarrera eta gastu orokorrak bereizten ditu, ekitaldi ekonomikoan sortutako etekinak edo galerak identifikatzen ditu, eta arrazoibide matematikoak erabiltzen ditu emaitzak interpretatzeko.</p> <p>6.2 Enpresen kostu, diru-sarrera eta etekin askotarikoak kalkulatzeko eta menderatzen ditu, eta grafikoki adierazten ditu.</p> <p>6.3 Enpresek biziraupenerako behar duten salmenta-atalasea ezagutzen du.</p> <p>6.4 Kostu-etekina eta kostu-efikazia ikertzeko metodoak aztertzen ditu, neurtzeko, ebaluatzeko eta erabakiak hartzen laguntzeko bitartekoak diren aldetik.</p> <p>7.1 Biltegiak sortzen dituen gastuak identifikatzen ditu eta inbentario-zikloari buruzko kasu praktikoak ebazten ditu.</p>
--	--

<p>8. Merkatuaren ezaugarriak aztertzea, eta haietan oinarrituta, enpresen zenbait egoera eta helburutarako aplikatzen dituzten marketin-politikak azaltzea</p> <p>9. Enpresa baten balantzaren eta galdu-irabazien kontuaren datu nagusiak ezagutzea, haien esanahia azaltzea, eta, informazio horretatik abiatuta, enpresaren egoeraren diagnostikoa egitea eta haren egoera hobetzeko neurriak proposatzea.</p> <p>10. Zerga-betebeharrak betetzearen garrantzia aitortzea eta enpresei eragiten dieten zergak azaltzea.</p>	<p>7.2 Metodo askotarikoak erabiltzen ditu biltegiko izakinak balioesteko.</p> <p>8.1 Hainbat aldagairi erreparatzen die merkatuen ezaugarriak zehazteko; esaterako, lehiatzaileen kopurua eta saldutako produktua.</p> <p>8.2 Marketineko estrategiak eta ikuspegiak identifikatzen ditu, eta kasu zehatz bakoitzerako egokitzen ditu.</p> <p>8.3 Marketin-estategiak interpretatzen eta balioesten ditu, eta ikuspegi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak hartzen ditu kontuan balioespenak egitean.</p> <p>8.4 Merkatu-ikerketen faseak eta etapak ulertzen eta azaltzen ditu.</p> <p>8.5 Merkatuen segmentaziorako irizpideak eta estrategiak erabiltzen ditu hainbat kasu praktikotan.</p> <p>8.6 Marketinean teknologia berrienak lantzeak berrikuntzarako eta aldaketarako ematen dituen aukerak aztertzen eta balioesten ditu.</p> <p>9.1 Ezagutzen ditu ondare-elementuak eta horien egitekoa.</p> <p>9.2 Badaki enpresak zer ondasun, eskubide eta betebeharrak dituen ondare-masetan eta egoki maneiatzen ditu aldagai horiek.</p> <p>9.3 Inbertsioen eta horien finantziarioaren arteko lotura interpretatzen du.</p> <p>9.4 Ratioak erabilita, enpresek ondarean, kaudimenean eta palanka-efektuan dituzten desorekak hautematen ditu.</p> <p>9.5 Desorekak hautemanez gero, neurri zuzentzaile egokiak proposatzen ditu.</p> <p>9.6 Badaki zer-nolako garrantzia duen matematika-eragiketarako eta gizarte-zientzien prozedurak menderatzeak, enpresen arazoak konpontzeko laguntza-tresnak diren aldetik.</p> <p>9.7 Badaki ondare orekatua izatea komeni dela.</p> <p>9.8 Informazioak erabakietan duen garrantzia balioesten du.</p> <p>10.1 Jardueraren arabera zehazten ditu enpresen betebeharrak fiskalak, eta zergen oinarritzko funtzionamendua eta horien arteko alde nagusiak adierazten ditu. Zerga-kargak aberastasun nazionalari egiten dion ekarpena balioesten du.</p> <p>10.2 Ezagutzen, ulertzen eta balioesten ditu, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren sistema fiskal propioa, nagusiki foru-aldundiek kudeatua, bai Estatuko Administrazio Orokorrarekin izenpetutako Ekonomia Ituna, bai eta karga orokorrekin aurre egiteko gure ekarpena ere, kupoaren bidez gauzatua.</p>
---	--

11. Zenbait inbertsio-proiektu balioestea, eta arrazoituz azaltzea zergatik aukeratu den abantaila handienak dakartzan aukera, eta kasu bateko finantzazio-iturriak bereizi eta zein aukeratu behar den arrazoitzea.

11.1 Inbertsioak hautatu eta balioesteko metodo estatikoak (berreskurapen-epea) eta dinamikoak (uneko balio garbiaren irizpidea) ezagutzen eta zerrendatzen ditu.

11.2 Enpresen finantzazio-aukerak azaltzen ditu, eta horretan, kanpoko eta barneko finantzazioak eta epe laburreko eta luzeko finantzazioak bereizten ditu, horietako bakoitzaren kostuak zehazten ditu eta enpresari dakarzkioten ondorioak azaltzen ditu.

11.3 Kanpo-finantzazioko egoera zehatz batean, dauden aukerak, horien kostuak eta amortizazio aldaerak aztertzen ditu.

11.4 Beharrian jakin bati erreparatuta, enpresek finantza-merkatura joateko dituzten aukerak aztertzen eta ebaluatzen ditu.

11.5 Enpresaren finantzazio-iturriak balioesten ditu, bai kanpokoak, bai barnekoak.

11.6 Premia finantzarioko egoera jakinetan egokienak diren aukerak aztertzen eta adierazten ditu.

11.7 Gaingiroki ulertzen du balore-merkatu nabarmenaren, burtsaren, funtzionamendua.

11.8 Egoerak aztertu eta ebazteko erabiltzen ditu jakintza teknologikoak.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1go. EBALUAZIOA:

1. Enpresa eta ingurunea.....1 ordu
2. Enpresaren sorkuntza eta garapena.....3 ordu
3. Informazioa enpresan. Egoera balantzea.....12 ordu
4. Hornikuntzen kudeaketa.....13 ordu
5. Ekoizpen funtzioa. Ekoizkortasuna.....7 ordu

2. EBALUAZIOA:

6. Ekoizpen funtzioa. Errentagarritasun atalasea. Erosi ala ekoitzi?.....12 ordu
7. Finantza funtzioa.....20 ordu

3. EBALUAZIOA

8. Informazioa enpresan. Enpresaren egoeraren analisia.....27 ordu
9. Giza-baliabideen saila.....3 ordu
10. Enpresaren merkataritza zeregina.....7 ordu...

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Irakasleak bideo bitartez azalduko du gaia ikasle guztiek beren kabuz ikus eta entzun dezaten, gelatik kanpo.

Gelan, irakasleak kasu praktikoak planteatuko ditu, ikasleek ebatzi ditzaten

Ikasleak, bakarka zein taldeka, lanean arituko dira gelan

Irakasleak jarraipen eta laguntza pertsonala bermatuko du

Beste alde batetik gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko beren beregiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formazioa lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa

3. ebaluaziotan zehar ikasgeletan gauzatuko da.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Lanak egingo dituzte, bai gelan bertan, bai etxean. Batez ere enpresaren erabaki-prozesuan aurki ditzaketen arazoei buruzko ariketetan oinarrituak. Ondare-elementuen zein ondare.masen izenak ikasteko google formularioak egingo dituzte behin eta berriro</p> <p>Idatzizko froga bat egongo da ebaluazio guztietan</p>	<p>Notaren %90 Idatzizko frogek osatuko dute, eta %10 ikasgelako lanak eta jarrerak</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Ebaluazio jarraia da. Kurtso hasieratik azterketa unera arte gelan emandako guztia eskatuko zaie ikasle guztiei. Beraz, 2. ebaluazioa gaituz gero, lehenengo ebaluazioa gaituztat ematen da, eta 3. ebaluazioa gaituzten duen ikasleak, kurtso osoa gaituztuta izango du</p>	

Ikastetxeko proiektuak:

Agenda 21: Kontsumoaren kudeaketa arduratsua bultzatu eta ikastetxe-ingurunearen alde lan egiteko konpromisoa baloratuko da.

Bizikasi: "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."

Hezkidetzeta (Aniztasuna): Sexu eta identitate aniztasunarekiko errespetua eskatu eta baloratuko da. Hezkuntza komunitatean ikasle guztien parte hartzea bultzatuko da.

HTB: Gure Hobekuntza Planean eta [Hizkuntza Proiektua](#) adierazten den bezala, irakurmena lantzeko beren-beregiko atazak egingo dira.. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako [txantiloia](#) erabiliko da.

IKT: Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazioa bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu. Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.

OHARRAK / *OBSERVACIONES*